



KOSTUEN EGITURA

PROGRAMATZAILE BAT KONTRATATUKO BAGENU	ARAZI ENPRESA KONTRATATUKO BAGENU
Progamatzailea: 5.610 euro/proiektuko	Arazi taldea : ez zehaztua
Iragarkiak, publizitatea: 886 euro/urtean + Lehenengo urtean lonaren gastua <ul style="list-style-type: none"> - 20.000 flyer: 397 euro - Lona: 7,65 euro - 500 poster: 139 euro - Youtuben anuntzioa: 350 euro 	Iragarkiak, publizitatea: 886 euro/urtean + Lehenengo urtean lonaren gastua <ul style="list-style-type: none"> - 20.000 flyer: 397 euro - Lona: 7,65 euro - 500 poster: 139 euro - Youtuben anuntzioa: 350 euro
Psikopedagogia lanak: 4.800 euro/urtean	Psikopedagogia lanak: 4.800 euro/urtean
LANGILEEN GUTXIENEZKO SOLDATA: 735 euro/hilabetean	LANGILEEN GUTXIENEZKO SOLDATA: 735 euro/hilabetean
TELEFONOAREN GASTUA: Konpainiaren kontratazioa: 9,9 euro/hilabetean Telefonoaren erosketa: 128,1 euro	TELEFONOAREN GASTUA: Konpainiaren kontratazioa: 9,9 euro/hilabetean Telefonoaren erosketa: 128,1 euro
LEHENENGO URTEKO KOSTUAK: 54.078,55 euro	LEHENENGO URTEKO KOSTUAK: 48.468,55 euro + Arazi taldearen kontratazioa



Bi kostu mota nagusi bereizten dira, alde batetik kontratazioei dagozkienak eta beste alde batetik berriz gure enpresaren publizitatea egin ahal izateko behar ditugun materialak lortzeak dakartzanak.

Kontratazio bakar bat egin beharko genuke web-orrialdea sortzeko ezinbestekoa den programatzailea edo Arazi taldea. Antolakuntzaren sailean lan egingo duen psikologo eta pedagogian aditua proiektuaren sortzaile taldea den N2J barruko kidea delako.

Programatzailea kontratatzea erabakiko bagenu, bi kostu mota bereizten dira, alde batetik puntualak eta beste batetik finkoak. Puntualak, hau da, momentu batean lan konkretu batengatik ordaintzen direnak, esate baterako web-orrialdea sortzeko proiektuari dagozkionak, 5.000 eurokoa izango litzatekeena. Eta beste alde batetik, berriz finkoak, hau da, behin proiektua sortuta bere mantenturako ordaindu behar direnak 35 euro/hilabeteko. Horretaz gainera, badaude ezusteko edo gainerako kostu bezala ezagutzen direnak, proiektua sortzeko behar izan diren baliabideen kostuaren kargu egiteko kuota bateri deritzaio, 120 eurokoa proiektuko. Programatzailea bere etxetik lan egiten hari denez, bertako elektrizitatea ordaindu egin behar da, eta ordenagailu propio batetik lanean ari denez ere, horren mantenua esaterako.

Arazi taldea kontratatzea erabakiko bagenu antzerako kostuak izango genituzke, hau da, proiektuaren sorreragatik bat, eta ondorengo mantenua eta garapenagatik beste batzuk. Dena den oraindik ez dakigu zehazki, hau da, kuantitatiboki zenbateko kostua izango lukeen.

Psikologo eta antolakuntzan adituari dagokionez, N2J taldeko kidea izanda beste kideek bezainbesteko soldata finkoa jasoko du, estatuak ezarritako gutxieneko soldata duina 735 euro/hilabeteko. Dena den, besteekin batera egiten duen lanaz gainera aparteko betebeharrak ere badu, ondorioz, lan horren kostua ere kobratuko du. Kontutan izan behar da gure enpresan egingo duen lana ez dela psikologo batek ohiko duen kontsulta, baizik eta antolakuntza teknika berriak aurkitu eta programatzailearekin



batera horiek tresna digitaletara bihurtzeko lan egitea. Hilabetean 10 bat ordu horretan jardun beharko dituela kalkulatu dugu. 4 inguru informazioa bildu eta aurkezteko, eta gainontzeko 6ak programatzailearekin batera lan egiteko, hori mantenu lanaren kostuen barruan sartuko da. Ordu bakoitzak 40 euro inguruko prezioa duela kontuan izanda. Urtean 4.800 euroko kostua izango luke gutxi gora behera, 400 bat euro hilabetean.

Azkenik, publizitatearen zatiari dagokionez, bi alderdi bereiztuko genituzke, batetik aurrez-aurrekoa, hau da, gure plataforma ezagutzera emateko feriatan jarriko ditugun standak, eta ikasleei eskoletara joatean banatuko dizkiegun flyer edo folletoak informazioarekin...eta beste alde batetik gure plataforma online den aldetik egokia iruditzen zaigu webean ere iragarkiak jartzea. Batez ere ikasleek gehien erabiliko dituzten sare sozialetan. Instagram, youtube...Horretarako imprenta bat kontratatu beharko dugu. Alde batetik ikasleen artean banatzeko flyer-ak sortuko ditugu, horretaz gainera ikasgela edota ikastetxeetan jartzeko posterrak sortuko ditugu, eta ferietarako lona bat ere erosiko dugu, gure stand propioa jartzeko. Lona publizitarioa urtea askotan zehar erabiliko da, beraz, urteroko gastu publizitarioa nahiko antzerakoa izango da baina prezio hori deskontatuta. Youtube edo beste plataforma batzuetako iragarkiei dagokienez komenigarria ikusten dugu urtero berritzea publikoari hobeto heltzeko eta ezartzen ditugun berrikuntzak gehitzeko.

20.000 bat panfleto inprimatuko ditugu eta horrek 400 bat euroko kostua du, 500 bat poster guztira 140 euro bat inguruko kostua duena eta azkenik 8 bat euro inguruko kostuko lona publizitarioa.

Onlineko publizitateari dagokionez hainbat plataforma bereiztuko ditugu:

- [Youtube](#)
 - 350 euro inguru hilabetean
 - Salto egin daiezke In-Streamak izango dira (Bideoen bitartean edo hasiera eta bukaeratan emango da, 30 segundu izango ditu, eta 5 segundutara



salto egin ahal izango da, baina, osorik ikustean dirua irabazten da, edota erabiltzaileak iragarkiarekin interakzionatzen badu.)

- [Instagram](#)
 - [Klik bakoitzak 0.14 euro inguruko kostua](#) izango du. (Ezin dugu jakin zenbat pertsonak egingo duten klik beraz ezin da jakin prezioa aurretik)
 - Storyetako anuntzioak kontratatuko ditugu, jende gehiagora heltzen bait dira.

N2J TALDEA